

## Bestelako Xedapenak

### KULTURA SAILA

5292

EBAZPENA, 2010eko urriaren 7koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Antzuolako (Gipuzkoa) Laskurainaundia baserria, monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedienteari hasiera eman, eta jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, uztailearen 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

Antzuolan dagoen Laskurainaundia baserriak daukan kultura-interesa aztertutik, eta Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek aurkeztutiko Ebazpen Proposamenari jarraituz, honako hau

#### EBATZI DUT:

**Lehenengoa.**– Laskurainaundia baserria, monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedienteari hasiera ematea, I. eranskinen mugaketarekin eta II. eranskinen deskripzioarekin bat etorriz.

**Bigarrena.**– Laskurainaundia baserria Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedientea jendaurrean jartzea, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta 20 eguneko epean alegazioak egin eta egokituz jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 84 eta 86 artikuluetan oinarrituz. Aipaturiko espedientea Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1. zenbakian dagoen Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai.

**Hirugarrena.**– Ebazpen hau interesdunei, Antzuolako Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara eta Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE CULTURA

5292

RESOLUCIÓN de 7 de octubre de 2010, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se abre un periodo de información pública y audiencia a los interesados en el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Caserío Laskurainaundia sito en Antzuola (Gipuzkoa).

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Visto el interés cultural que presenta el Caserío Laskurainaundia, sito en Antzuola y atendiendo a la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural,

#### RESUELVO:

**Primero.**– Incoar el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Caserío Laskurainaundia, conforme a la delimitación que figura en el anexo I y la descripción obrante en el anexo II.

**Segundo.**– Abrir un período de información pública del expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Caserío Laskurainaundia para que, durante el plazo de 20 días, contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, como previenen los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1, de Vitoria-Gasteiz.

**Tercero.**– Notificar la Resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Antzuola y a los Departamentos de Cultura y Euskera y Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como al Departamento de Medio Ambiente, Plani-

jakinaraztea, jakinarazpena egin eta 15 eguneko epean alegatu eta egokitzat jotzen dituzten agiriak eta frogagiriak aurkeztu ahal izateko.

**Laugarrena.**– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak Ebazpen horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 7a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,  
ANTONIO RIVERA BLANCO.

## I. ERANSKINA

### MUGAKETA

#### a) Mugaketaren deskribapena.

Mugaketak eraikina bera eta ingurumaria hartzen ditu. Horrela, eremuak muga hauek ditu:

Ekialdean, baserriaren ekialdeko fatxadarekiko lerro paraleloa, baserritik 40 metrora trazatua; espazio horretan ere garbitokia sartuko da.

Hegoaldean, baserriaren hegoaldeko fatxadarekiko lerro paraleloa, baserritik 40 metrora trazatua.

Mendebaldean, baserriaren mendebaldeko fatxadarekiko lerro paraleloa, baserritik 40 metrora trazatua.

Azkenik, Iparraldean, baserrira iristeko bide publikoan urrutien dagoen ertza.

#### b) Mugaketaren justifikazioa.

Proposatutako mugaketaren arrazoia da Laskurainaundia baserriaren inguruak duen balioa babestu behar dela, bai ingurumenaren ikuspegitik eta baita ikusteko duen balioa dela-eta. Baserria malda leuna duen hegal batean kokatutako dago, Antzuolako Lizarraga auzoan. Ingurunearen mugaketak, katalogatutako ondarea behar bezala babesteko eta balioesteko beharrezkoa, baserriaren inguruko lurak eta eraikinerako sarbidea babestea du helburu, baserriaren berezko izaera gordetze aldera. Horregatik, mugaketak baserriaren eraikina bera ez ezik haren ingurunea ere hartzen du.

ficación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, a fin de que en el plazo de quince días desde la notificación puedan alegar y presentar los documentos y justificaciones que consideren pertinentes.

**Cuarto.**– Publicar la Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de octubre de 2010.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,  
ANTONIO RIVERA BLANCO.

## ANEXO I

### DELIMITACIÓN

#### a) Descripción de la delimitación.

La delimitación incluye, por un lado, el propio edificio en sí, y por otro, el entorno que lo rodea. Así el área de la delimitación queda definida con los siguientes límites:

Al Este una línea paralela a la fachada del caserío trazada a 40 metros de distancia, quedando en este espacio incluido el lavadero.


Al Sur una línea paralela a la fachada del caserío trazada a 40 metros de distancia.

Al Oeste una línea paralela a la fachada del caserío trazada a 40 metros de distancia.

Y, finalmente, al Norte, el borde más lejano del camino público de acceso al caserío.

#### b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales y visuales del entorno del caserío Laskurainaundia, enclavado en una ladera de suave pendiente del barrio Lizarraga de Antzuola. La delimitación del entorno necesaria para la debida protección y puesta en valor del bien inventariado, implica la protección de los espacios adyacentes al caserío ocupados por los terrenos circundantes y acceso al edificio, a fin de preservar el carácter propio del caserío. Por ello esta delimitación incluye no solamente la edificación propiamente dicha sino también el entorno que lo rodea.



ESKALA / ESCALA		<b>EUSKO JAURLARITZA</b>  <b>GOBIERNO VASCO</b>	
50    25    0    50 Metros 		KULTURA SAILA Kultura Ondarearen Zuzendaritza Kultura Ondarearen Zentroa	
DEPARTAMENTO DE CULTURA Dirección de Patrimonio Cultural Centro de Patrimonio Cultural		Planoa / Plano: <b>LASKURAINAUNDIA BASERRIAREN MUGAKETA</b>	
Lurra/idea / Territorio: <b>GIPUZKOA</b>		Data / Fecha: 28/01/2010	
Udalerria / Municipio: <b>ANTZUOLA</b>		Eskala / Escala: 1:2.000	

## II. ERANSKINA

## DESKRIBAPENA

Familia bakarreko baserria da, planta handikoa: 22 m zabal eta 27 m sakon. Bi solairu eta ganbara ditu, bai eta sotoa ere, lurzorua desnibela aprobetxatuz. Ekialdeko eta mendebaldeko fatxadetara modu simetrikokan atxikitako bi eranskin handi ditu. Luzapen horiei esker, baserriak honako dimentsio hauek lortzen ditu: 27 m zabal eta 33,5 m luze. Jatorrizko eraikinaren estalkia bi isurikoa da, naba-teilekin egina, eta teilatu-gailurra ekialdetik mendebalderako orientazioa du. Eranskinetako estalkia ere naba-teilekin egina da, baina hiru isuri ditu. Baserriaren kanpoko hormak bistako harlangaitzezkoak dira eta junturak berdinduta daude. Bestetik, eskantzu eta bao-inguru gehienak harlanduzkoak dira.

Hutsuneen banaketak, oro har, ez du ordena handiegirik, ekialdeko fatxadaren izan ezik. Han, izan ere, bi sarrera-bao eta lau leiho-bao ageri dira. Hutsune horien ardatzen gainean beste sei leiho-bao daude lerrokatuta, goiko aldean egurrezko karga-habeak dituztela. Fatxadaren eskuinaldera lurrezko arrapala bat dago. Harlangaitzezko murru batek eusten dio arrapalari, eta handik, egurrezko atetzar bat igaro, eta zuzenean sartzen da lehenengo solairura. Eraikin nagusiaren horma pikoan aireztatzeko bi leiho-bao irekitzen dira, modu simetrikokan. Fatxada horretatik zazpi metrora, garbitokia dago. Harlangaitzezkoa da eta harrizko aska eta teilaz egindako estalkia, bi isurikoa, ditu.

Hegoaldeko fatxada dezente gorago dago, lurraren desnibela dela-eta. Sotoaren parean aireztatzeko bi hutsune eta saietaren bat ditu. Halaber, fatxadan zehar modu irregularrean tartekatzen diren baoen ilara bat dago; bao horiek hainbat dimentsiotakoak dira. Goiko solairuan bost leiho-bao ageri dira, lerrokatuta, eta horietako batzuk irekita daude, balkoi kareldunen gisara. Azkenik, estalkiaren azpian, hiru leiho-bao daude, eta horietatik argia sartzen da baserriaren lehenengo solairura. Fatxadaren beheko aldean, zokalo bikoitza du, eraikinaren zimenduetan indartzeko babestua. Mendebaldeko fatxadaren eskuinaldean sotoa sartzeko atetzarra dago. Lehenengo solairuan, berriz, hiru leiho-bao ikus daitezke, eta horietako batek harrizko ingurua du. Fatxadaren ezkerrean dagoen eranskinaren alde bati atxikita, ogi labe semizirkularra du. Gainerako fatxadaren oso antzekoa da, eta teilatu txiki batek babesten du. Eranskinaren ezkerretara, bi sarrera-bao eta hiru leiho-bao ikusten dira, eta beste atetzar bat dago han. Gainean, horma pikoan, aireztatze-bao pare bat daude. Azkenik, iparraldeko fatxadaren bide publikoaren parean soilik daude leiho-baoak. Fatxada hori oso baxu dago, lurraren desnibela dela eta.

Eraikinaren barruan ekialdetik mendebaldera orientatuta dauden bi karga-horma daude. Iparraldeko

## ANEXO II

## DESCRIPCIÓN

Caserío unifamiliar de gran planta, 22 m de ancho por 27 m de profundidad, de dos alturas y desván, más una bodega aprovechando el desnivel del terreno. Presenta dos grandes anejos simétricamente adosados a las fachadas E y W, alcanzando con ambas prolongaciones unas dimensiones de 27 m de ancho por 33,5 m de largo. La cubierta del edificio original es a dos vertientes revestida de teja canal y con la cumbrera orientada de E a W, mientras que en los anejos la cubierta es a tres aguas, en teja canal. El inmueble presenta muros perimetrales ejecutados en mampostería vista y rejunteada, con la mayoría de los esquinales y recercos de huecos en sillar.

La distribución de huecos en general no es muy ordenada, excepto en la fachada E, donde se observan dos vanos de acceso más cuatro huecos de ventana. Sobre los ejes de estos huecos se alinean otros seis huecos de ventana con los cargaderos de madera en la planta superior. A la derecha de la fachada una rampa de tierra contenida por un muro de mampostería accede, a través de un portón de madera, directamente a la primera planta. En el hastial del edificio principal se abren simétricamente dos vanos de ventana de aireación. A siete metros de esta fachada se localiza un lavadero construido en mampostería, con un pilón de piedra y resguardado por una cubierta a dos aguas revestida de teja.

La fachada S, muy alta debido al desnivel del terreno, presenta a la altura de la bodega dos huecos de aireación y alguna saetera, y una hilada de vanos de distintas dimensiones distribuidos de manera irregular a lo largo de ella. En la planta superior se alinean cinco vanos de ventana, algunas abiertas a modo de balcón antepechado. Bajo la cubierta, por último, tres vanos de ventanas iluminan la primera planta del inmueble. En el arranque de la fachada se observa un doble zócalo con su protección para reforzar la cimentación del inmueble. A la derecha de la fachada W, un portón da acceso a la bodega y, en la primera planta, son visibles tres vanos de ventana, uno con recercos en sillar. Adosado en un lateral al anejo situado en la mitad izquierda de la fachada, posee un horno de pan semicircular de factura similar al resto de la fachada, protegido por un pequeño tejadillo. A la izquierda del anejo, donde son visibles dos vanos de acceso y tres de ventana, se abre un portón. Y sobre él, en el hastial, un par de huecos de aireación. Por último, la fachada N, muy baja debido al desnivel del terreno, tan sólo posee huecos de ventana a la altura del camino público.

El interior del edificio dispone de dos muros de carga orientados de E a W. Uno de ellos, el del la-

aldekoa estalperaino iristen da, hegoaldekoa, berriz, lehenengo solairura iristen da soilik. Bigarren horma hori, hain zuzen, sotoan hasten da, eta hegoaldera dagoen etxebizitzaren zatia bereizten du gainerako zatietatik, kortatik eta lastategitik. Hirugarren kargahorma, bestalde, lehenengo solairuraino iristen da; zeharka kokatuta dago, baserriaren erdian gutxi gorabehera, eta baserriaren planta bi zatitan zatitzen du. Gainerakoan, harlanduzko habeen bidez eusten diren zutoin handiek eta harrizko jarlekuek (baten bat hormigoia bitartez indartuta dago) osatzen dute egitura. Horiek, hain zuzen, habeteriari eta gapirio-lanei eusten diete, euste-zapatetan bermatutako jabaloi luzeen bitartez. Zapatak, hain zuzen, irudi geometrikoak dituzte zizelkatuta. Uhalek, tiranteek eta gapirioek osatzen dute estalki-zurajea. Horien guztien gainean jarrita daude lata eta zeramikazko teilak.

Karga-hormetan hutsune batzuk ikus daitezke. Antzina, burdinazko ateen bidez estali ziren, suteetatik babesteko. Tranpola igaro eta eskailera estu batetik jaitsita, satora iristen da.

Laskurainaundia baserria XVI. mendean eraiki zuten, eta zenbait eranskin jarri zizkieten XIX. mendean.

do N, alcanza la cubierta, mientras que el del lado S tan sólo llega hasta la primera planta. Este segundo muro, que arranca desde la bodega, divide la parte de vivienda, la situada al S, del resto, cuadra y pajar. Un tercer muro de carga, que alcanza hasta la primera planta y se sitúa transversalmente aproximadamente en mitad del caserío, divide la planta del caserío en dos mitades. El resto de la estructura lo forman postes de gran envergadura apoyados sobre pilares de sillar y poyos de piedra, alguno reforzado con hormigón. En éstos se apoya la viguería y solivería igualmente de gran envergadura, utilizando largas tornapuntas con varias zapatas de apoyo talladas con motivos geométricos. Correas, tirantes y cabrios conforman la armadura de cubierta que soporta el enlatao y la teja cerámica.

En los muros de carga son visibles algunos huecos, que antaño fueron cerrados por puertas de hierro cortafuegos para protección en caso de incendio. Una trampilla seguida de una estrecha escalera posibilita descender a la bodega.

Laskurainaundia es un caserío construido en el siglo XVI y ampliado con varios anejos en el siglo XIX.